
Kausa guztien ondoriozko gehiegizko hilkortasuna Euskal Autonomia Erkidegoan, 2020an

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.

Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza

Montse Calvo, Covadonga Audicana eta Imanol Montoya

Itzulpena:

IVAP. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IZO)

Apirila-2022

Aurkibidea

1. Laburpena
2. Sarrera
3. Helburu
4. Metodoak
5. Datu-iturriak
6. Emaitzak
 1. 2020ko hilkortasuna eta horren urteko gehiegizko metatua.
 - 2020ko hilkortasunaren deskribapena
 - Urteko gehiegizko hilkortasunaren deskribapena
 2. 2020ko gehiegizko hilkortasunaren bilakaera asteka.
 3. COVID-19ak eragindako hilkortasuna 2020an.
 4. Jaiotza-uneko bizi-itxaropenaren bilakaera 2010 eta 2020 artean.
 5. Zein da gure egoera beste autonomia-erkidego batzuen aldean?
7. Eranskina I
 1. Gehiegizko heriotzak asteka tauletan, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera
 - 1.1. Gehiegizko hilkortasuna asteka. EAE
 - 1.2. Gehiegizko hilkortasuna asteka. Araba
 - 1.3. Gehiegizko hilkortasuna asteka. Bizkaia
 - 1.4. Gehiegizko hilkortasuna asteka. Gipuzkoa
 2. Gehiegizko heriotzak asteka tauletan, adin-talde eta sexuaren arabera
 - 2.1. 0-64 urte bitartekoen gehiegizko hilkortasuna asteka
 - 2.2. 65-74 urte bitartekoen gehiegizko hilkortasuna asteka
 - 2.3. 75 eta gehiago urte bitartekoen gehiegizko hilkortasuna asteka
 3. COVID-19ak eragindako hilkortasun taula.

1. Laburpena

2020an, EAEko biztanleei dagokienez, % 12,1eko gehiegizko hilkortasuna izan zen (espero zirenak baino 2.607 heriotza gehiago). Portzentajea handiagoa izan zen emakumeen artean, % 13,1ekoa (gehiagizko 1.404 heriotza), gizonen artean baino, % 11,2koa (gehiagizko 1.203 heriotza).

Lurralde historikoen arabera, Arabako gehiegizko hilkortasuna Bizkaian eta Gipuzkoan baino handiagoa izan zen, hurrenez hurren: % 18,3koa (espero ziren heriotzak baino 501 gehiago), % 11,3koa (1.341) eta % 11,1ekoa (766). Araban, beste bi lurraldeetan ez bezala, gizonetzkoen gehiegizko hilkortasuna emakumeena baino handiagoa izan zen.

EAEko biztanleria osoari erreparatuta, gehiegizko hilkortasun handiena martxoaren 23tik apirilaren 19ra bitartekoa izan zen. Nabarmentzekoa da, emakumeei dagokienez, apirilaren 6tik 12rako astea, gehiegizko 242 heriotza izan baitziren (% 120,6). Gizonen kasuan, berriz, martxoaren 30etik apirilaren 5era arteko astean, espero zirenak baino 206 heriotza gehiago izan ziren (% 97,8).

Gehiegizko hilkortasunak adin-talde guztiei eragin zien arren, bereziki nabarmena izan zen 75 urte eta gehiagoko pertsonena (% 14 eta 2.216 heriotza gehiago) eta 65 eta 74 urte bitarteko emakumeena (% 16,1 eta 144 heriotza gehiago).

COVID-19aren hilkortasunak gehiegizko hilkortasunaren patroari jarraitu zion.

Bi sexuen jaiotzako bizi-itxaropena txikitu zen 2019. urtekoarekiko: 0,8 urte emakumezkoena eta 0,7 urte gizonetzkoena.

Estatistikako Institutu Nazionalaren (EIN) datuen arabera, 2020. urteko gehiegizko hilkortasuna 2019koarekin alderatuta, estatu osoan eta bi sexuena batuta, % 17,9koa izan zen. Horrenbestez, EAEkoa txikiagoa izan zen (% 12,5). Herrialde osoan, sexuak bereiziz gero, emakumeen gehiegizko hilkortasuna % 18,5ekoa izan zen eta gizonetzkoa, % 17,4koa. EAERI dagokionez, berriz, EINek % 12,9ko eta % 12,1eko zifrak eman ditu emakumeetarako eta gizonetarako, hurrenez hurren¹.

¹ EINaren Euskadiko estimazioen eta txosten honetan argitaratutako ardeko alde txikiak kalkulatzeko metodoek eragiten dituzte. Izan ere, EINek 2020ko urte osoa hartzen du –urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra–. Txosten honetakoak datuak, aldiz, 2020. urte epidemiologikoari dagozkio, 2020ko 1. astetik 52. astera bitartekoari, hau da, 2019ko abenduaren 30etik 2020ko abenduaren 27ra arteko aldiari.

2. Sarrera

2020ko martxoan, OMEk pandemiatzat jo zuen COVID-19a. Biztanleen osasunean zuen inpaktua neurtzeko kasu eta heriotza kopuruen datuak biltzen eta aztertzen ziren egunero. Hala ere, gaixotasunaren positibotasuna baieztatzeko proba diagnostikoen (testak) faltak bi neurri horiei eragin zien, batez ere pandemiaren hasierako hiletan; beraz, baita COVID-19ak eragindako heriotzen behar bezalako zertifikazioari ere. Gainera, baliteke pandemian eta osasun-krisian ezarritako murrizketek beste heriotza-kausa batzuei eragin izana zeharka.

Kausa guztiek eragindako gehiegizko hilkortasuna neurtzeko alderatzen dira behatutako guztizko hilkortasuna eta aurreko urteetako heriotza-patroiei jarraituta espero zitekeena, pandemia egoerarik gabe. Beraz, COVID-19ak zuzenean edo zeharka eragindako heriotzen neurketa da eta pandemiaren guztizko eraginaren irudi zehatzagoa ematen du.

Jaiotzako bizi-itxaropena (BI), adinaren arabera estandarizatutako beste adierazle batenez eta aldi jakin batean biztanleria jakin baten hilkortasunaren gaineko ikuspegia ematen duenez, egokia da COVID-19ak eragindako pandemiaren eragina neurtzeko, heriotzak izaten diren adinekin baliatu baitaiteke.

Pandemiak hilkortasunean izandako guztizko eragina neurtu ahal izateko, COVID-19ak zuzenean eragindako heriotzez gain, beste kausa batzuen heriotzetan izan dezakeen zeharkako eragina ere hartu beharko da kontuan. Hala, 2020ko aste epidemiologikoetako kausa guztien hilkortasuna, COVID-19ak eragindako hilkortasuna eta bizi-itxaropena deskribatzen dituen lan honen testuingurua azalduko izan da.

3. Helburu

Aztertzea kausa guztien gehiegizko hilkortasuna 2020an, COVID-19aren pandemia deklaratu zen urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), sexuaren, bizilekuko lurralde historikoaren eta adin-talde handien arabera sailkatuta, bai eta horrek jaiotzako bizi-itxaropenean izandako eragina ere.

4. Metodoak

Aste epidemiologikoak ISO 8601:1988 arauaren arabera definitzen dira. Urte bateko lehen astea da urte horretako lehen ostegunarena, edo, bestela esanda, urtarrilaren 4koa. Astea beti astelehenarekin hasiko da.

2020. urteko 1. astea 2019ko abenduaren 30ean (astelehena) hasi eta 2020ko urtarrilaren 5ean (igandea) amaitu zen. Azken astea (53. astea), aldiz, 2020ko abenduaren 28a eta 2021eko urtarrilaren 3a bitartekoa izan zen. Beraz, urte epidemiologikoa ez dator bat egutegi-urtearekin. Lan honetan aztertutako azken astea 52. astea da, 2020ko abenduaren 21etik 27rako.

2020ko asteetan espero ziren asteko heriotzak izan dira aurreko bost urteetako aste berean izandako hildakoen batez bestekoa, alegia, 2015etik 2019ra. Gainera, horien konfiantza-tartea kalkulatu da ziurgabetasun-neurri gisa. Emaitza gehiegizko heriotzak izan dira, gertatutakoen eta espero zirenen arteko aldea, eta portzentajea gertatutako heriotzekiko, neurri absolutuetan eta erlatiboetan.

Hala, 2020ko s astean:

$$\widehat{D}_{s,2020} = \sum_{i=2015\dots2019} \frac{D_{s,i}}{5}$$

Non $\widehat{D}_{s,2020}$ 2020ko s astean espero ziren heriotzen kopurua da eta $D_{s,i}$, i urteko s asteko heriotzen kopurua da.

Δ_s s asteko gehiegizko heriotza honela definitu da:

$$\Delta_s = D_{s,2020} - \widehat{D}_{s,2020}$$

Eta gehiegizkoaren portzentajea, honela:

$$P\Delta_s = \frac{D_{s,2020} - \widehat{D}_{s,2020}}{\widehat{D}_{s,2020}} * 100 \%$$

Adinaren arabera doitutako tasak kalkulatzeko zuzeneko estandarizazioa erabili da, non erreferentziako populazioa 2013ko Europako populazio estandarra izan baita.

Jaiotzako bizi-itzaropena kalkulatzeko, Chiang metodoaren arabera laburtutako bizitza-taularen kalkulua erabili da: bost urte-tarteko 21 adin-talde, 1 urtetik beherakoentzat eta 95 urtetik gorakoentzat izan ezik (1-4 urteko taldea eta 95 urte eta gehiagoko taldea).

5. Datu-iturriak

EAEko biztanleen 2015-2020 aldiko heriotza-datuak Heriotzen estatistiketatik atera dira, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) laguntzaz egindakoak. Heriotzak hemen edo beste autonomia-erkidego batzuetan hildako EAEko biztanleei dagozkie.

EAEko biztanleen datuak (adinaren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera), Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egindako Biztanleen udal estatistikakoak dira.

Honako aldagai hauek aztertu dira: heriotza-data, sexua, bizilekuko lurralde historikoa eta adina (hiru kategoriatan multzokatuta: 65 urtetik beherakoak, 65-74 urtekoak eta 75 urtekoak eta hortik gorakoak).

6. Emaitzak

6.1. 2020ko hilkortasuna eta urteko gehiegizko metatua

Hilkortasunaren deskribapena 2020an

2020ko 52 aste epidemiologikoetan (2019ko abenduaren 30etik 2020ko abenduaren 27ra) 24.068 heriotza izan ziren, 12.101 emakumeenak eta 11.967 gizonenak (1. taula).

Hildakoen % 75ek 75 urte eta gehiago zituzten; hildako emakumeen % 83k eta hildako gizonen % 67k ere bai.

Tasak, gordinak eta adinaren arabera estandarizatuak, handiagoak izan ziren gizonen artean lurralde guztietan eta adin-talde guztietan.

1. taula. Heriotza kopurua eta tasak kausa guztien arabera, lurralde historikoaren eta adin-taldearen arabera, sexuari jarraiki. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era

	Emakumeak			Gizonak			Bi sexuak		
	Kop.	TG	TE*	Kop.	TG	TE*	Kop.	TG	TE*
EAE	12.101	1.077	647	11.967	1.130	1.135	24.068	1.102	846
Lurralde Historikoa									
Araba / Álava	1.541	922,3	616,8	1.702	1.058,2	1.073,1	3.243	989,1	824,4
Bizkaia	6.673	1.125,9	652,9	6.485	1.181,3	1.153,6	13.158	1.152,5	855,0
Gipuzkoa	3.887	1.066,9	647,7	3.780	1.081,6	1.112,9	7.667	1.074,0	840,1
Adina									
65 urtetik beherakoak	989	116,6	99,4	1.869	218,1	195,1	2.858	167,6	146,2
65 eta 74 urte bitartekoak	1.046	795,2	790,3	2.123	1.850,4	1.849,4	3.169	1.286,8	1.282,7
75 urte eta gehiago	10.156	6.656,1	5.373,4	8.064	8.443,6	8.712,8	18.220	7.344,3	6.593,2

* TE: 2020ko Hilkortasun-bostenetik ateratako tasa Europako biztanleria estandarri egokituta

*TG: 100.000 biztanleko heriotza-tasa gordin

Urteko gehiegizko hilkortasunaren deskribapena

Aldi horretan, EAeko biztanleen gehiegizko hilkortasuna % 12,1koa izan zen (espero zirenak baino 2.607 heriotza gehiago). Emakumeena (% 13,1 eta 1.404) gizonena baino handiagoa izan zen (% 11,2 eta 1.203) (2. taula).

Lurraldeka, Arabak izan zuen gehiegizko hilkortasun handiena, % 18,3koa (gehegizko 501 heriotza). Gizonena, % 18,8koa (gehegizko 269 heriotza), emakumeena, % 17,7 (gehegizko 232 heriotza), baino handiagoa izan zen. Bizkaiak eta Gipuzkoak % 11ko gehegizko hilkortasuna izan zuten (gehegizko 1.341 eta 766 heriotza, hurrenez hurren). Emakumeen gehegizko hilkortasuna gizonena baino handiagoa izan zen bai Bizkaian % 12,6koa (gehegizko 748 heriotza), bai Gipuzkoan, % 12,3koa (gehegizko 424 heriotza). Gizonena % 10koa izan zen bi lurralde horietan (gehegizko 592 heriotza Bizkaian eta gehegizko 341 heriotza Gipuzkoan).

Gehiegizko hilkortasuna izan zen adin-talde guztietan, baina batez ere 75 urte eta gehiagoko pertsonen artean, % 14,0koa (gehiagizko 2.216 heriotza). Sexuaren arabera berezita, emakumeei dagokienez, 65 eta 74 urte bitartekoetan izan zen gehiegizko hilkortasun handiena (% 16,1 eta 144 heriotza). Adin-talde horretako gizonen artean, berriz, % 9,8koa izan zen (espero zirenak baino 189 heriotza gehiago). 75 urte eta gehiagokoan taldean, bai emakumeen bai gizonen gehiegizko hilkortasuna % 14,0koa izan zen (emakumeen 1.236 gehiegizko heriotza eta gizonen 980 gehiegizko heriotza) (2. taula).

2. taula. Behatutako heriotzak (K) eta gehiegizko heriotzak (K eta %), kausa guztien arabera, lurralde historikoaren, adin-taldean eta sexuaren arabera. EAE, 2020ko 1. astetik 52. astera

	Emakumeak			Gizonak			Bi sexuak		
	Behatutako heriotza	Gehiegikeria		Behatutako heriotza	Gehiegikeria		Behatutako heriotza	Gehiegikeria	
		Kop.	%		Kop.	%		Kop.	%
EAE	12.101	1.404	13,1	11.967	1.203	11,2	24.068	2.607	12,1
Lurralde Historikoa									
Araba / Álava	1.541	232	17,7	1.702	269	18,8	3.243	501	18,3
Bizkaia	6.673	748	12,6	6.485	592	10,1	13.158	1.341	11,3
Gipuzkoa	3.887	424	12,3	3.780	341	9,9	7.667	766	11,1
Adina									
65 urtetik beherakoak	984	25	2,6	1.856	34	1,9	2.840	59	2,1
65 eta 74 urte bitartekoak	1.036	144	16,1	2.109	189	9,8	3.145	333	11,8
75 urte eta gehiago	10.081	1.236	14,0	8.002	980	14,0	18.083	2.216	14,0


6.2. 2020ko gehiegizko hilkortasunaren bilakaera asteka

EAEko biztanleria osoa hartuta, gehiegizko hilkortasun handienak martxoaren 23tik apirilaren 19ra gertatu ziren (13. astetik 16.era). Lau aste horietan gertatutako heriotzak (3.031) espero zirenak baino % 80 gehiago izan ziren (1.673) (I. eranskineko 1.1 taula).


Nabarmetzen dira, emakumeen kasuan (1. irudia), apirilaren 6tik 12ra bitarteko astea, non gehiegizko 242 heriotza izan baitziren (% 120,6), eta gizonen artean (2. irudia), martxoaren 30etik apirilaren 5erako astea, non gehiegizko heriotzak 206 izan baitziren (% 97,8).

Emakumeen artean, hilkortasunaren gorakada astebete geroago gertatu zen, baina gizonen artean baino intentsitate handiagoarekin (3. irudia).


1. irudia. Izandako eta esperotako hilkortasuna, asteka. EAEko emakumeak, 2020ko 1. astetik 52.era



2. irudia. Izandako eta esperotako hilkortasuna, asteka. EAEko gizonak, 2020ko 1. astetik 52.era



3. irudia. Gehiegizko hilkortasuna (%), asteka, sexuaren arabera. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.



3. taulan, gehiegizko heriotza kopuru handienak izan zituzten asteak ageri dira, lurralde historikoaren, adin-taldearen eta sexuaren arabera bereizita.

3. taula. Kausa guztiengatik gertatutako heriotzak (K) eta gehiegizko heriotzak (K eta %), sexuka lurralde historikoaren eta adin-taldearen arabera, gehiegizko heriotza gehieneko asteetan. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.

	Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
	Astea	Behatutako heriotza	Gehiegikeria		Astea	Behatutako heriotza	Gehiegikeria		Astea	Behatutako heriotza	Gehiegikeria	
			Kop.	%			Kop.	%			Kop.	%
EAE	S15: apirila 6	442	242	120,6	S14: martxoa 30	417	206	97,8	S14: martxoa 30	850	438	106,1
Lurralde Historikoa												
Araba / Álava	S14: martxoa 30	86	60	235,9	S13: martxoa 23	88	61	230,4	S13: martxoa 23	161	107	200,4
Bizkaia	S14: martxoa 30	241	126	110,3	S14: martxoa 30	244	126	106,4	S14: martxoa 30	485	252	108,3
Gipuzkoa	S15: apirila 6	143	81	132,1	S47: 16 noviembre	98	40	69,0	S15: apirila 6	230	103	81,7
Adina												
65 urtetik beherakoak	S14: martxoa 30	31	11	58,2	S16: 13 abril	48	16	48,1	S13: martxoa 23	80	23	40,8
65 eta 74 urte bitartekoak	S15: apirila 6	34	18	109,9	S14: martxoa 30	71	36	102,9	S15: apirila 6	99	47	89,7
75 urte eta gehiago	S15: apirila 6	388	218	128,8	S13: martxoa 23	300	166	123,2	S14: martxoa 30	686	378	122,9

Lurralde historikoei erreparatuta, Arabako biztanleria osoari dagokionez (4. irudia, I. eranskineko 1.2 taula), gehiegizko hilkortasun handienak (% 50 baino gehiago) martxoaren 9tik apirilaren 19ra bitartean izan ziren (11. astetik 16.era). Nabarmentzekoak dira (3. taula, 4. irudia), emakumeen kasuan, martxoaren 30etik apirilaren 5era bitarteko astea, gehiegizko 60 heriotza izan baitziren (% 235,9), eta, gizonen kasuan, martxoaren 23tik 29rako astea, gehiegizko 61 heriotza izan zituena (% 230,8).

Bizkaiko biztanleen artean (4. irudia, I. eranskineko 1.3. taula), gehiegizko hilkortasun handienak (% 50 baino gehiago) martxoaren 23tik apirilaren 19ra bitartean gertatu ziren (13. astetik 16.era). Bi sexuei dagokienez, nabarmentzen da martxoaren 30etik apirilaren 5era bitartekoa astea, espero zirenak baino 126 heriotza gehiago izan baitziren: % 110,3ko gehiegizko hilkortasuna emakumeei dagokienez, eta % 106,4koa, gizonei dagokienez (3. taula, 4. irudia).

Gipuzkoan (4. irudia, I. eranskineko 1.4. taula), gehiegizko hilkortasun handienak (% 49 baino gehiago) martxoaren 30etik apirilaren 12rako eta azaroaren 2tik 8ra bitarteko asteetan izan ziren (14.,15. eta 45. asteak). Nabarmentzekoak dira, emakumeen kasuan, apirilaren 6tik 12ra bitarteko astea, gehiegizko 81 heriotza izan baitziren (% 132,1), eta, gizonen kasuan, azaroaren 16tik 22rako astea, gehiegizko 40 heriotza izan zituen (% 69,0) (3. taula, 4. irudia).


Adin-taldean arabera (4. irudia eta 2.1. taula, I. eranskina), 65 urtetik beherakoan artean, asteko heriotza gutxi gertatu direnez, kalkulua ez da hain zehatza eta, heriotzen kopuruak zertxobait handituz edo txikituz gero, portzentajeak asko handitzen dituzte.

Adin-talde horretan, gehiegizko hilkortasun handienak (% 40 baino gehiago) martxoaren 23tik 29ra bitartean izan ziren (13. astea). Emakumeen artean, 9. astetik 15. astera, hau da, otsailaren 25etik apirilaren 12ra, gehiegizko hilkortasunaren zifra handiak izan dira, espero zirenak baino 178 heriotza gehiago izan baitira (gehiagoko % 43). Gizonen artean, oro har, izandako heriotzak eta esperotakoak alderatuta, nahastu egiten dira gehitze eta gutxitze txikiak dituzten asteak. Apirilaren 13tik 19ra bitarteko astea nabarmentzen da, gehiegizko 16 heriotza izan baitziren (gehiagoko % 48,1).

65-74 urtekoen artean (2.2. taula, I. eranskina), gehiegizko hilkortasun handieneko asteak (% 50 baino gehiago) izan ziren martxoaren 23tik eta apirilaren 12ra bitartekoak (13.-15. asteak) eta urriaren 19tik 25erakoa (43. astea). Emakumeen kasuan, martxoaren 23ko eta apirilaren 6ko asteetan (13. eta 15. asteak), hurrenez hurren, gehiegizko 17 eta 18 heriotza izan ziren, hau da, gehiegizko % 106 eta % 110. Urte osoari erreparatuta, gehiegizko hilkortasun zifra nabarmenak izan dira zenbait astetan, adibidez, irailaren 14koan, non 16 heriotza gehiago izan baitziren, hau da, esperotakoa baino % 107,8 gehiago. Gizonen artean, martxoaren 30eko astea (14. astea) izan zen gehiegizko heriotza gehien izan zuena: esperotakoa baino 36 heriotza gehiago (% 102,9).

75 urte eta gehiagoko pertsonen artean (I. eranskineko 2.3 taula), gehiegizko hilkortasun handienak (% 60 baino gehiago) martxoaren 9tik apirilaren 19ra bitartean gertatu ziren (13. astetik 16.era). Nabarmentzen dira, emakumeei dagokienez, apirilaren 6tik 12rako eta martxoaren 30etik apirilaren 5erako asteak, gehiegizko 218 eta 212 heriotzarekin, hurrenez hurren (% 128,8 eta % 127,3), eta, gizonen kasuan, martxoaren 23tik 29ra bitarteko astea eta martxoaren 30etik apirilaren 5era bitartekoa, esperotakoa baino 166 eta 165 heriotza gehiagorekin (% 123,2 eta % 117,5).

4. irudia. Gehiegizko hilkortasuna, asteka, lurralde historikoaren, adin-taldeen eta sexuaren arabera. EAE, 2020ko 1. astetik 52. era.




6.3. COVID-19ak eragindako hilkortasuna 2020an

EAEan, 2020ko 52 asteetan 3.053 heriotza izan ziren, eta horien oinarritzko kausa COVID-19 izan zen (egutegi-urtean, 2020ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra, 3.096 izan ziren, urte horretako heriotza guztien % 12,8).


EAEko biztanleria osoaren kasuan (I. eranskinetako 3.1. taula), COVID-19ak eragindako heriotza gehien martxoaren 16tik apirilaren 20ra gertatu ziren (12. astetik 17.era). Sei aste horietako heriotzen guztizkoa (1.492) COVID-19aren hilkortasunaren % 48,9 izan zen. COVID-19aren hilkortasun handieneko hurrengo aldia azaroaren 2tik abenduaren 14ra bitartekoa izan zen (45. astetik 50.era), non heriotzen 578 eta % 18,9 COVID-19ak eragin baitzituen.

COVID-19ak eragindako heriotzen eta gehiegizko hilkortasunaren patrioiak antzekoak dira, bai emakumeen kasuan, bai gizonen kasuan. Nabarmentzen dira, emakumeen kasuan (5. irudia), apirilaren 6tik 12rako aldia (15. astea), COVID-19aren ondoriozko 234 heriotzarekin eta, gizonen kasuan (6. irudia), martxoaren 30etik apirilaren 5erako aldia (14. astea), COVID-19aren ondoriozko 194 heriotzarekin.

5. irudia. COVID-19ak eragindako heriotza-tasa eta kausa guztiek eragindako gehiegizko hilkortasuna, asteka. EAEko emakumeak, 2020ko 1. astetik 52. astera.



6. irudia. COVID-19aren hilkortasuna eta kausa guztiengatiko gehiegizko hilkortasuna, asteka. EAEko gizonak, 2020ko 1. astetik 52.era.




6.4. Jaiotza-unekoko bizi-itxaropenaren bilakaera 2010 eta 2020 artean

Azken hamarkadan jaiotzako bizi-itxaropena (BI) handitu egin zen bi sexuetarako: emakumeen kasuan, 1,2 urte (2010eko 85,5 urteetatik 2019ko 86,7 urteetara) eta gizonen kasuan, 1,8 urte (79,1etik 80,9 urtera). 2020an, aldiz, BI 0,8 urte gutxitu zen emakumeentzat eta 0,7 urte gizonentzat, aurreko urtekoaren aldean (5. irudia).

Bizi-itxaropena txikitzearen arrazoi nagusia da bi sexuetan, adin handienetan hilkortasunak izandako gorakada.

7. irudia. Bizi-itxaropenaren bilakaera, sexuaren arabera. EAE 2010-2020




6.5. Zein da gure egoera beste autonomia-erkidego batzuen aldean?

Euskadi eta gainerako autonomia-erkidegoak adieratu ahal izateko, Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) argitaratutako datuak baino ez ditugu ([https://INEbase / Demografía y población /Fenómenos demográficos /Estadística de defunciones. Movimiento natural de la población / Últimos datos](https://INEbase/Demografía y población/Fenómenos demográficos/Estadística de defunciones.Movimiento natural de la población/Últimos datos)).

8., 9. eta 10. irudietan, 2020. urteko gehiegizko hilkortasuna ageri da 2019. urtearekin alderatuta. Herrialde osoan, bi sexuei dagokienez, % 17,9koa izan zen. EAEkoa, beraz, azpitik dago, % 12,5koa baita. Sexuen arabera, Estatuko gehiegizkoa % 18,5koa izan zen emakumeen kasuan eta % 17,4koa gizonen kasuan. EAEn, berriz, % 12,9koa izan zen emakumeen kasuan eta % 12,1koa gizonen kasuan (8., 9. eta 10. irudiak).


Herrialde osoko bizi-itxaropena aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen: 1,4 urte emakumeentzat eta 1,6 urte gizonentzat. EAEn, beherakada hori txikiagoa izan zen, 0,9 urte emakumeentzat eta gizonentzat, EINaren datuen arabera (11. eta 12. irudiak)

8. irudia. Heriotza kopuruaren urteko aldakuntza-tasa (%) autonomia-erkidegoen arabera, 2019 eta 2020 artean. Emakumeak




Iturria: Estatistiko Instituto Nazionala (INE)

9. irudia. Heriotza kopuruaren urteko aldakuntza-tasa (%) autonomia-erkidegoen arabera, 2019 eta 2020 artean. Gizonak




Iturria: Estatistiko Instituto Nazionala (INE)

10. irudia. Heriotza kopuruaren urteko aldakuntza-tasa (%) autonomia-erkidegoen arabera, 2019 eta 2020 artean. Bi sexuak




Iturria: Estatistiko Instituto Nazionala (INE)

11. irudia. Bizi-itxaropenaren aldakuntza (urtetan) autonomia-erkidegoen arabera 2019 eta 2020 artean Emakumeak.



Iturria: Estatistiko Instituto Nazionala (INE)

12. irudia. Bizi-itxaropenaren aldakuntza (urtetan) autonomia-erkidegoen arabera 2019 eta 2020 artean. Gizonak



Iturria: Estatistiko Instituto Nazionala (INE)

7. Eranskina

1.1. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	252	219	-33	-13,2	252	213	-39	-15,5	504	432	-72	-14,4
6-urt-20	S02	290	228	-62	-21,3	268	250	-18	-6,9	558	478	-80	-14,4
13-urt-20	S03	274	259	-15	-5,6	264	231	-33	-12,4	538	490	-48	-8,9
20-urt-20	S04	269	239	-30	-11,2	253	244	-9	-3,7	523	483	-40	-7,6
27-urt-20	S05	251	267	16	6,3	239	245	6	2,5	490	512	22	4,4
3-ots-20	S06	252	237	-15	-6,1	231	213	-18	-7,6	483	450	-33	-6,8
10-ots-20	S07	244	234	-10	-4,1	239	226	-13	-5,3	483	460	-23	-4,7
17-ots-20	S08	227	227	0	-0,1	237	192	-45	-18,9	464	419	-45	-9,7
24-ots-20	S09	223	225	2	0,8	218	188	-30	-13,9	442	413	-29	-6,5
2-mar-20	S10	218	229	11	4,9	215	207	-8	-3,7	433	436	3	0,6
9-mar-20	S11	220	242	22	10,0	211	252	41	19,2	431	494	63	14,5
16-mar-20	S12	221	268	47	21,5	214	301	87	40,5	435	569	134	30,9
23-mar-20	S13	216	353	137	63,3	211	412	201	95,3	427	765	338	79,1
30-mar-20	S14	202	433	231	114,8	211	417	206	97,8	412	850	438	106,1
6-api-20	S15	200	442	242	120,6	213	337	124	58,5	413	779	366	88,6
13-api-20	S16	218	321	103	47,1	202	316	114	56,3	420	637	217	51,5
20-api-20	S17	196	258	62	31,6	201	227	26	13,0	397	485	88	22,2
27-api-20	S18	187	197	10	5,1	196	219	23	12,0	383	416	33	8,6
4-mai-20	S19	190	238	48	25,4	194	181	-13	-6,7	384	419	35	9,2
11-mai-20	S20	195	207	12	6,3	189	180	-9	-5,0	384	387	3	0,7
18-mai-20	S21	194	199	5	2,7	205	189	-16	-7,7	399	388	-11	-2,7
25-mai-20	S22	176	196	20	11,2	194	203	9	4,6	370	399	29	7,8
1-eka-20	S23	174	192	18	10,5	190	197	7	3,6	364	389	25	6,9
8-eka-20	S24	181	176	-5	-2,9	176	152	-24	-13,8	358	328	-30	-8,3
15-eka-20	S25	176	160	-16	-9,3	181	185	4	2,3	357	345	-12	-3,4
22-eka-20	S26	176	195	19	10,9	201	186	-15	-7,4	377	381	4	1,2
29-eka-20	S27	186	177	-9	-5,0	193	182	-11	-5,8	380	359	-21	-5,4
6-uzt-20	S28	190	155	-35	-18,6	183	185	2	1,0	374	340	-34	-9,0
13-uzt-20	S29	198	187	-11	-5,7	198	177	-21	-10,5	396	364	-32	-8,1
20-uzt-20	S30	187	202	15	8,0	186	210	24	12,8	373	412	39	10,4
27-uzt-20	S31	185	199	14	7,8	185	210	25	13,5	370	409	39	10,7
3-abu-20	S32	176	214	38	21,6	193	194	1	0,4	369	408	39	10,5
10-abu-20	S33	176	213	37	20,7	188	217	29	15,2	365	430	65	17,9
17-abu-20	S34	188	230	42	22,6	197	196	-1	-0,7	385	426	41	10,6
24-abu-20	S35	191	208	17	9,1	188	219	31	16,4	379	427	48	12,7
31-abu-20	S36	172	199	27	16,0	189	200	11	5,7	361	399	38	10,6
7-ira-20	S37	189	183	-6	-3,4	179	222	43	23,7	369	405	36	9,8
14-ira-20	S38	185	247	62	33,7	197	242	45	23,0	382	489	107	28,1
21-ira-20	S39	193	218	25	12,8	198	199	1	0,6	391	417	26	6,6
28-ira-20	S40	186	222	36	19,5	193	229	36	18,8	379	451	72	19,1
5-urr-20	S41	185	211	26	14,1	195	216	21	10,8	380	427	47	12,4
12-urr-20	S42	183	192	9	4,7	195	223	28	14,1	379	415	36	9,6
19-urr-20	S43	182	223	41	22,5	190	228	38	19,7	372	451	79	21,1
26-urr-20	S44	199	218	19	9,5	201	256	55	27,4	400	474	74	18,5
2-aza-20	S45	199	234	35	17,8	204	275	71	34,5	403	509	106	26,3
9-aza-20	S46	207	257	50	23,9	207	245	38	18,6	414	502	88	21,3
16-aza-20	S47	207	231	24	11,5	192	252	60	31,1	399	483	84	20,9
23-aza-20	S48	211	263	52	24,6	213	236	23	10,9	424	499	75	17,7
30-aza-20	S49	206	264	58	27,9	203	246	43	20,9	410	510	100	24,5
7-abe-20	S50	221	266	45	20,5	225	265	40	17,6	446	531	85	19,0
14-abe-20	S51	234	233	-1	-0,6	231	251	20	8,7	465	484	19	4,0
21-abe-20	S52	235	214	-21	-9,0	233	229	-4	-1,9	469	443	-26	-5,5

1.2. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera. Araba, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	33	28	-5	-15,2	34	30	-4	-12,3	67	58	-9	-13,7
6-urt-20	S02	36	32	-4	-12,1	36	33	-3	-8,8	73	65	-8	-10,5
13-urt-20	S03	35	31	-4	-11,4	35	20	-15	-42,9	70	51	-19	-27,1
20-urt-20	S04	35	25	-10	-27,7	36	45	9	25,0	71	70	-1	-0,8
27-urt-20	S05	25	30	5	18,1	30	33	3	10,7	55	63	8	14,1
3-ots-20	S06	35	33	-2	-4,6	27	20	-7	-24,8	61	53	-8	-13,4
10-ots-20	S07	29	30	1	4,9	30	25	-5	-17,2	59	55	-4	-6,5
17-ots-20	S08	25	25	0	-0,8	30	25	-5	-16,7	55	50	-5	-9,4
24-ots-20	S09	27	28	1	2,2	29	23	-6	-21,8	57	51	-6	-10,2
2-mar-20	S10	25	29	4	17,9	25	34	9	37,1	49	63	14	27,5
9-mar-20	S11	23	28	5	21,7	26	46	20	78,3	49	74	25	51,6
16-mar-20	S12	27	55	28	105,2	27	64	37	138,8	54	119	65	122,0
23-mar-20	S13	27	73	46	170,4	27	88	61	230,8	54	161	107	200,4
30-mar-20	S14	26	86	60	235,9	28	75	47	164,1	54	161	107	198,1
6-api-20	S15	24	69	45	185,1	29	49	20	70,1	53	118	65	122,6
13-api-20	S16	34	50	16	47,9	29	55	26	89,7	63	105	42	67,2
20-api-20	S17	25	21	-4	-14,6	25	40	15	60,0	50	61	11	23,0
27-api-20	S18	21	21	0	0,0	28	21	-7	-25,0	49	42	-7	-14,3
4-mai-20	S19	26	23	-3	-11,5	25	20	-5	-19,4	51	43	-8	-15,4
11-mai-20	S20	22	12	-10	-45,0	26	30	4	14,5	48	42	-6	-12,5
18-mai-20	S21	25	27	2	9,8	27	19	-8	-29,1	51	46	-5	-10,5
25-mai-20	S22	20	28	8	40,0	24	23	-1	-5,7	44	51	7	14,9
1-eka-20	S23	20	22	2	8,9	28	24	-4	-13,0	48	46	-2	-3,8
8-eka-20	S24	20	18	-2	-11,8	24	20	-4	-18,0	45	38	-7	-15,2
15-eka-20	S25	21	16	-5	-22,3	22	24	2	11,1	42	40	-2	-5,2
22-eka-20	S26	20	28	8	41,4	21	25	4	19,0	41	53	12	29,9
29-eka-20	S27	22	25	3	12,6	29	25	-4	-14,4	51	50	-1	-2,7
6-uzt-20	S28	23	24	1	2,6	24	23	-1	-4,2	47	47	0	-0,8
13-uzt-20	S29	25	23	-2	-6,5	29	23	-6	-20,7	54	46	-8	-14,2
20-uzt-20	S30	19	27	8	40,6	22	29	7	34,3	41	56	15	37,3
27-uzt-20	S31	24	23	-1	-2,5	22	25	3	15,7	45	48	3	6,2
3-abu-20	S32	20	18	-2	-10,9	27	26	-1	-2,3	47	44	-3	-6,0
10-abu-20	S33	23	24	1	4,3	26	33	7	26,9	49	57	8	16,3
17-abu-20	S34	23	18	-5	-22,4	30	34	4	14,1	53	52	-1	-1,9
24-abu-20	S35	23	24	1	6,2	27	27	0	0,0	50	51	1	2,8
31-abu-20	S36	24	25	1	5,0	26	25	-1	-3,1	50	50	0	0,8
7-ira-20	S37	24	19	-5	-22,1	24	45	21	89,1	48	64	16	32,8
14-ira-20	S38	20	30	10	47,1	30	38	8	27,5	50	68	18	35,5
21-ira-20	S39	25	24	-1	-2,4	29	25	-4	-13,8	54	49	-5	-8,6
28-ira-20	S40	23	30	7	32,7	27	31	4	13,1	50	61	11	22,0
5-urr-20	S41	22	34	12	53,2	29	26	-3	-9,1	51	60	9	18,1
12-urr-20	S42	24	26	2	9,2	26	21	-5	-19,8	50	47	-3	-6,0
19-urr-20	S43	23	16	-7	-30,4	24	34	10	41,7	47	50	3	6,4
26-urr-20	S44	27	24	-3	-12,4	24	40	16	65,3	52	64	12	24,0
2-aza-20	S45	22	25	3	13,6	28	33	5	16,2	50	58	8	15,1
9-aza-20	S46	24	34	10	44,1	27	35	8	30,6	50	69	19	36,9
16-aza-20	S47	27	21	-6	-22,8	23	25	2	6,8	51	46	-5	-9,1
23-aza-20	S48	26	33	7	28,9	29	25	-4	-12,6	54	58	4	7,0
30-aza-20	S49	22	38	16	71,2	29	36	7	24,1	51	74	23	44,5
7-abe-20	S50	30	38	8	27,5	33	36	3	9,1	63	74	11	17,8
14-abe-20	S51	34	25	-9	-26,9	30	38	8	27,5	64	63	-1	-1,6
21-abe-20	S52	26	25	-1	-5,3	33	33	0	0,0	59	58	-1	-2,4

1.3. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera. Bizkaia, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	137	129	-8	-5,8	134	117	-17	-12,8	271	246	-25	-9,3
6-urt-20	S02	163	130	-33	-20,2	146	138	-8	-5,3	309	288	-41	-13,2
13-urt-20	S03	152	150	-2	-1,2	144	138	-6	-3,9	295	288	-7	-2,5
20-urt-20	S04	143	136	-7	-5,0	138	134	-4	-3,0	281	270	-11	-4,1
27-urt-20	S05	147	145	-2	-1,4	128	136	8	6,4	275	281	6	2,3
3-ots-20	S06	138	145	7	5,4	137	116	-21	-15,3	275	261	-14	-5,0
10-ots-20	S07	135	131	-4	-3,0	126	129	3	2,1	261	260	-1	-0,5
17-ots-20	S08	126	138	12	9,5	129	99	-30	-23,1	255	237	-18	-7,0
24-ots-20	S09	119	111	-8	-6,6	119	104	-15	-12,9	238	215	-23	-9,7
2-mar-20	S10	119	120	1	1,0	117	100	-17	-14,5	236	220	-16	-6,7
9-mar-20	S11	124	135	11	8,5	114	138	24	21,1	238	273	35	14,5
16-mar-20	S12	120	144	24	20,4	116	150	34	28,9	236	294	58	24,6
23-mar-20	S13	123	185	62	50,7	115	221	106	92,2	238	406	168	70,7
30-mar-20	S14	115	241	126	110,3	118	244	126	106,4	233	485	252	108,3
6-api-20	S15	115	230	115	100,7	119	201	82	69,2	233	431	198	84,7
13-api-20	S16	117	181	64	54,4	112	177	65	58,0	229	358	129	56,2
20-api-20	S17	106	159	53	49,7	116	125	9	8,1	222	284	62	28,0
27-api-20	S18	105	115	10	9,3	105	135	30	28,6	210	250	40	18,9
4-mai-20	S19	100	141	41	40,7	105	97	-8	-7,3	205	238	33	16,2
11-mai-20	S20	112	132	20	17,6	105	101	-4	-3,6	217	233	16	7,4
18-mai-20	S21	110	117	7	6,0	113	104	-9	-8,0	223	221	-2	-1,1
25-mai-20	S22	105	104	-1	-0,6	111	107	-4	-3,8	216	211	-5	-2,2
1-eka-20	S23	98	107	9	9,2	103	100	-3	-3,1	201	207	6	2,9
8-eka-20	S24	105	96	-9	-8,2	97	85	-12	-12,6	202	181	-21	-10,3
15-eka-20	S25	99	98	-1	-1,4	103	97	-6	-5,5	202	195	-7	-3,5
22-eka-20	S26	98	114	16	16,1	112	111	-1	-0,9	210	225	15	7,0
29-eka-20	S27	99	90	-9	-9,3	102	97	-5	-5,1	201	187	-14	-7,1
6-uzt-20	S28	102	82	-20	-19,4	99	89	-10	-9,7	200	171	-29	-14,7
13-uzt-20	S29	111	86	-25	-22,7	108	95	-13	-11,9	219	181	-38	-17,4
20-uzt-20	S30	104	117	13	12,1	108	113	5	4,8	212	230	18	8,4
27-uzt-20	S31	105	112	7	7,1	107	114	7	6,1	212	226	14	6,6
3-abu-20	S32	101	122	21	21,3	106	98	-8	-7,2	206	220	14	6,7
10-abu-20	S33	99	124	25	25,8	100	117	17	16,5	199	241	42	21,1
17-abu-20	S34	107	144	37	34,6	107	101	-6	-5,3	214	245	31	14,7
24-abu-20	S35	108	113	5	4,8	99	127	28	28,5	207	240	33	16,2
31-abu-20	S36	95	111	16	16,4	97	113	16	16,5	192	224	32	16,4
7-ira-20	S37	98	105	7	6,7	95	104	9	9,5	193	209	16	8,1
14-ira-20	S38	101	139	38	38,2	106	119	13	12,5	206	258	52	25,0
21-ira-20	S39	106	112	6	5,3	111	115	4	3,8	217	227	10	4,5
28-ira-20	S40	103	112	9	8,5	108	135	27	24,5	212	247	35	16,7
5-urr-20	S41	99	117	18	18,7	107	121	14	13,5	205	238	33	16,0
12-urr-20	S42	102	101	-1	-1,4	107	122	15	14,0	209	223	14	6,5
19-urr-20	S43	103	123	20	19,0	106	117	11	10,2	210	240	30	14,5
26-urr-20	S44	111	124	13	11,9	109	136	27	24,3	220	260	40	18,1
2-aza-20	S45	114	109	-5	-4,2	110	150	40	36,4	224	259	35	15,7
9-aza-20	S46	116	120	4	3,3	114	121	7	6,3	230	241	11	4,8
16-aza-20	S47	112	127	15	13,4	111	129	18	16,4	223	256	33	14,9
23-aza-20	S48	117	134	17	14,9	118	127	9	7,8	234	261	27	11,3
30-aza-20	S49	111	138	27	23,9	108	131	23	21,7	219	269	50	22,8
7-abe-20	S50	121	130	9	7,3	123	134	11	9,3	244	264	20	8,3
14-abe-20	S51	118	123	5	4,6	122	132	10	8,4	239	255	16	6,5
21-abe-20	S52	131	124	-7	-5,5	125	124	-1	-0,8	256	248	-8	-3,2

1.4. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera. Gipuzkoa, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	82	62	-20	-24,8	84	66	-18	-21,1	166	128	-38	-22,9
6-urt-20	S02	90	66	-24	-27,0	86	79	-7	-8,6	177	145	-32	-18,0
13-urt-20	S03	88	78	-10	-11,0	85	73	-12	-14,1	173	151	-22	-12,5
20-urt-20	S04	91	78	-13	-14,7	79	65	-14	-17,9	171	143	-28	-16,2
27-urt-20	S05	79	92	13	16,8	81	76	-5	-6,6	160	168	8	4,9
3-ots-20	S06	80	59	-21	-26,4	67	77	10	14,9	147	136	-11	-7,6
10-ots-20	S07	80	73	-7	-9,2	82	72	-10	-12,2	162	145	-17	-10,7
17-ots-20	S08	76	64	-12	-15,8	78	68	-10	-12,6	154	132	-22	-14,2
24-ots-20	S09	77	86	9	11,7	70	61	-9	-12,4	147	147	0	0,3
2-mar-20	S10	75	80	5	6,7	73	73	0	-0,3	148	153	5	3,2
9-mar-20	S11	73	79	6	8,8	72	68	-4	-5,0	144	147	3	1,9
16-mar-20	S12	74	69	-5	-7,0	71	87	16	22,5	145	156	11	7,4
23-mar-20	S13	66	95	29	43,1	69	103	34	48,4	136	198	62	45,8
30-mar-20	S14	61	106	45	72,6	64	98	34	52,6	126	204	78	62,4
6-api-20	S15	62	143	81	132,1	65	87	22	33,8	127	230	103	81,7
13-api-20	S16	67	90	23	33,9	61	84	23	37,3	128	174	46	35,5
20-api-20	S17	65	78	13	19,6	60	62	2	3,0	125	140	15	11,6
27-api-20	S18	61	61	0	-0,3	63	63	0	0,6	124	124	0	0,2
4-mai-20	S19	64	74	10	16,4	65	64	-1	-0,9	128	138	10	7,6
11-mai-20	S20	61	63	2	3,6	58	49	-9	-16,1	119	112	-7	-6,0
18-mai-20	S21	59	55	-4	-6,5	65	66	1	1,5	124	121	-3	-2,3
25-mai-20	S22	52	64	12	24,0	58	73	15	25,0	110	137	27	24,5
1-eka-20	S23	56	63	7	13,3	59	73	14	22,9	115	136	21	18,3
8-eka-20	S24	56	62	6	10,3	55	47	-8	-14,2	111	109	-2	-1,8
15-eka-20	S25	56	46	-10	-18,4	57	64	7	13,1	113	110	-3	-2,7
22-eka-20	S26	58	53	-5	-8,3	68	50	-18	-26,3	126	103	-23	-18,0
29-eka-20	S27	65	62	-3	-4,6	62	60	-2	-2,9	127	122	-5	-3,8
6-uzt-20	S28	65	49	-16	-24,8	61	73	12	20,5	126	122	-4	-3,0
13-uzt-20	S29	62	78	16	25,0	61	59	-2	-3,3	123	137	14	11,0
20-uzt-20	S30	63	58	-5	-8,5	57	68	11	19,7	120	126	6	4,8
27-uzt-20	S31	56	64	8	13,5	56	71	15	26,8	112	135	23	20,1
3-abu-20	S32	55	74	19	34,1	61	70	9	14,8	116	144	28	23,9
10-abu-20	S33	55	65	10	18,6	62	67	5	8,1	117	132	15	13,0
17-abu-20	S34	57	68	11	18,5	61	61	0	0,0	118	129	11	9,0
24-abu-20	S35	60	71	11	17,9	62	65	3	4,2	123	136	13	10,9
31-abu-20	S36	52	63	11	20,2	66	62	-4	-6,6	119	125	6	5,2
7-ira-20	S37	67	59	-8	-11,4	61	73	12	20,5	127	132	5	3,8
14-ira-20	S38	64	78	14	22,3	61	85	24	38,9	125	163	38	30,4
21-ira-20	S39	62	82	20	31,8	58	59	1	1,7	120	141	21	17,3
28-ira-20	S40	60	80	20	33,3	57	63	6	10,5	117	143	26	22,2
5-urr-20	S41	64	60	-4	-6,5	60	69	9	15,4	124	129	5	4,0
12-urr-20	S42	57	65	8	13,6	62	80	18	28,6	119	145	26	21,4
19-urr-20	S43	56	84	28	51,1	60	77	17	27,9	116	161	45	39,0
26-urr-20	S44	61	70	9	15,1	67	80	13	18,7	128	150	22	17,0
2-aza-20	S45	63	100	37	59,2	66	92	26	39,4	129	192	63	49,1
9-aza-20	S46	68	103	35	52,4	66	89	23	34,8	134	192	58	43,7
16-aza-20	S47	68	83	15	22,1	58	98	40	69,0	126	181	55	43,7
23-aza-20	S48	69	96	27	39,5	66	84	18	26,5	135	180	45	33,1
30-aza-20	S49	73	88	15	20,9	67	79	12	18,3	140	167	27	19,6
7-abe-20	S50	70	98	28	40,4	70	95	25	36,1	140	193	53	38,3
14-abe-20	S51	83	85	2	2,9	79	81	2	2,0	162	166	4	2,5
21-abe-20	S52	78	65	-13	-16,2	75	72	-3	-4,5	153	137	-16	-10,5

2.1. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera, 65 urtetik beherakoen kasuan. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	22	12	-10	-45,0	36	33	-3	-7,3	57	45	-12	-21,6
6-urt-20	S02	20	14	-6	-31,4	37	39	2	6,0	57	53	-4	-7,3
13-urt-20	S03	22	22	0	0,9	40	37	-3	-8,4	62	59	-3	-5,1
20-urt-20	S04	22	22	0	-1,8	38	31	-7	-19,3	61	53	-8	-12,8
27-urt-20	S05	21	19	-2	-10,4	38	43	5	12,6	59	62	3	4,4
3-ots-20	S06	19	26	7	38,3	39	37	-2	-4,1	57	63	6	9,8
10-ots-20	S07	18	15	-3	-16,7	37	42	5	12,3	55	57	2	2,9
17-ots-20	S08	16	13	-3	-20,7	36	29	-7	-19,0	52	42	-10	-19,5
24-ots-20	S09	16	24	8	50,0	36	34	-2	-5,0	52	58	6	12,0
2-mar-20	S10	19	21	2	11,7	34	37	3	8,2	53	58	5	9,4
9-mar-20	S11	18	26	8	46,1	33	43	10	29,5	51	69	18	35,3
16-mar-20	S12	19	27	8	45,2	36	31	-5	-14,8	55	58	3	5,5
23-mar-20	S13	19	29	10	51,0	38	51	13	35,6	57	80	23	40,8
30-mar-20	S14	20	31	11	58,2	36	41	5	15,2	55	72	17	30,4
6-api-20	S15	15	20	5	37,0	39	36	-3	-6,7	53	56	3	5,3
13-api-20	S16	22	20	-2	-7,4	32	48	16	48,1	54	68	14	25,9
20-api-20	S17	21	19	-2	-9,5	34	28	-6	-18,1	55	47	-8	-14,9
27-api-20	S18	16	16	0	-1,2	33	24	-9	-28,1	50	40	-10	-19,4
4-mai-20	S19	17	23	6	33,7	30	38	8	25,0	48	61	13	28,2
11-mai-20	S20	18	19	1	6,7	28	27	-1	-3,6	46	46	0	0,4
18-mai-20	S21	19	22	3	18,3	36	36	0	0,0	55	58	3	6,2
25-mai-20	S22	18	14	-4	-23,1	34	29	-5	-14,7	52	43	-9	-17,6
1-eka-20	S23	16	15	-1	-5,1	31	33	2	5,1	47	48	1	1,7
8-eka-20	S24	17	18	1	8,4	31	22	-9	-28,1	47	40	-7	-15,3
15-eka-20	S25	19	12	-7	-36,2	34	33	-1	-2,4	53	45	-8	-14,4
22-eka-20	S26	17	17	0	-2,3	35	28	-7	-20,9	53	45	-8	-14,8
29-eka-20	S27	18	14	-4	-20,5	34	34	0	-1,2	52	48	-4	-7,7
6-uzt-20	S28	18	12	-6	-34,8	34	44	10	29,4	52	56	4	6,9
13-uzt-20	S29	18	17	-1	-4,5	34	31	-3	-9,9	52	48	-4	-8,0
20-uzt-20	S30	18	19	1	4,4	32	38	6	19,5	50	57	7	14,0
27-uzt-20	S31	17	17	0	0,0	29	41	12	39,5	46	58	12	25,0
3-abu-20	S32	20	19	-1	-4,0	34	38	4	11,1	54	57	3	5,6
10-abu-20	S33	17	14	-3	-19,5	33	35	2	6,7	50	49	-1	-2,4
17-abu-20	S34	19	17	-2	-8,6	35	37	2	5,7	54	54	0	0,7
24-abu-20	S35	15	19	4	28,4	38	31	-7	-17,6	52	50	-2	-4,6
31-abu-20	S36	20	15	-5	-25,0	38	36	-2	-6,2	58	51	-7	-12,7
7-ira-20	S37	18	14	-4	-21,3	35	35	0	0,0	53	49	-4	-7,2
14-ira-20	S38	18	21	3	18,0	36	25	-11	-29,8	53	46	-7	-13,9
21-ira-20	S39	18	18	0	-2,2	37	37	0	1,1	55	55	0	0,0
28-ira-20	S40	19	23	4	22,3	36	43	7	19,4	55	66	11	20,4
5-urr-20	S41	18	14	-4	-23,1	37	30	-7	-18,5	55	44	-11	-20,0
12-urr-20	S42	16	19	3	15,9	38	46	8	21,1	54	65	11	19,5
19-urr-20	S43	17	19	2	9,2	33	29	-4	-11,0	50	48	-2	-4,0
26-urr-20	S44	22	15	-7	-30,6	35	41	6	18,5	56	56	0	-0,4
2-aza-20	S45	17	21	4	22,1	33	36	3	8,4	50	57	7	13,1
9-aza-20	S46	20	23	3	13,9	39	39	0	1,0	59	62	3	5,4
16-aza-20	S47	16	15	-1	-6,3	27	32	5	18,5	43	47	4	9,3
23-aza-20	S48	18	19	1	8,0	37	34	-3	-9,1	55	53	-2	-3,6
30-aza-20	S49	17	18	1	8,4	30	37	7	24,2	46	55	9	18,5
7-abe-20	S50	18	24	6	31,9	37	42	5	12,3	56	66	10	18,7
14-abe-20	S51	21	20	-1	-3,8	39	34	-5	-12,4	60	54	-6	-9,4
21-abe-20	S52	22	22	0	0,0	41	41	0	1,0	63	63	0	0,6

2.2. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera, 65 eta 74 urte bitartekoen kasuan. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	22	23	1	3,6	46	34	-12	-26,4	68	57	-11	-16,7
6-urt-20	S02	16	23	7	43,8	44	46	2	4,1	60	69	9	14,6
13-urt-20	S03	18	20	2	9,9	41	40	-1	-3,4	60	60	0	0,7
20-urt-20	S04	22	15	-7	-31,2	42	33	-9	-21,1	64	48	-16	-24,5
27-urt-20	S05	21	20	-1	-4,8	40	39	-1	-3,5	61	59	-2	-3,9
3-ots-20	S06	16	20	4	28,2	38	39	1	2,6	54	59	5	10,1
10-ots-20	S07	19	21	2	8,2	41	46	5	11,1	61	67	6	10,2
17-ots-20	S08	20	15	-5	-24,2	39	25	-14	-36,2	59	40	-19	-32,2
24-ots-20	S09	19	22	3	18,3	35	28	-7	-20,5	54	50	-4	-7,1
2-mar-20	S10	16	19	3	17,3	35	34	-1	-1,7	51	53	2	4,3
9-mar-20	S11	18	21	3	15,4	37	49	12	33,2	55	70	15	27,3
16-mar-20	S12	17	30	13	72,4	36	45	9	24,3	54	75	21	39,9
23-mar-20	S13	16	33	17	106,3	39	61	22	56,4	55	94	39	70,9
30-mar-20	S14	14	21	7	45,8	35	71	36	102,9	49	92	43	86,2
6-api-20	S15	16	34	18	109,9	36	65	29	80,6	52	99	47	89,7
13-api-20	S16	17	21	4	20,7	36	49	13	34,6	54	70	16	30,1
20-api-20	S17	14	24	10	69,0	33	46	13	41,1	47	70	23	49,6
27-api-20	S18	15	14	-1	-6,7	36	52	16	46,1	51	66	15	30,4
4-mai-20	S19	17	14	-3	-17,6	35	37	2	6,9	52	51	-1	-1,2
11-mai-20	S20	17	17	0	0,0	36	29	-7	-19,9	53	46	-7	-13,5
18-mai-20	S21	14	18	4	25,0	36	35	-1	-3,3	51	53	2	4,7
25-mai-20	S22	17	24	7	42,9	35	31	-4	-10,9	52	55	3	6,6
1-eka-20	S23	14	17	3	18,1	35	33	-2	-5,2	49	50	1	1,6
8-eka-20	S24	17	15	-2	-12,8	33	21	-12	-36,7	50	36	-14	-28,6
15-eka-20	S25	14	14	0	2,9	31	32	1	1,9	45	46	1	2,2
22-eka-20	S26	14	17	3	23,2	39	40	1	1,5	53	57	4	7,1
29-eka-20	S27	17	17	0	1,2	34	38	4	10,5	51	55	4	7,4
6-uzt-20	S28	17	14	-3	-17,6	33	37	4	12,8	50	51	1	2,4
13-uzt-20	S29	15	23	8	53,3	35	25	-10	-29,0	50	48	-2	-4,4
20-uzt-20	S30	15	17	2	13,3	37	37	0	1,1	52	54	2	4,7
27-uzt-20	S31	16	17	1	4,9	33	34	1	4,3	49	51	2	4,5
3-abu-20	S32	16	18	2	12,5	38	31	-7	-18,0	54	49	-5	-8,9
10-abu-20	S33	15	12	-3	-18,9	38	36	-2	-4,8	53	48	-5	-8,7
17-abu-20	S34	17	18	1	5,9	40	38	-2	-4,5	57	56	-1	-1,4
24-abu-20	S35	17	23	6	36,9	35	30	-5	-14,3	52	53	1	2,3
31-abu-20	S36	14	21	7	54,4	35	33	-2	-6,3	49	54	5	10,7
7-ira-20	S37	18	11	-7	-37,5	36	36	0	-1,1	54	47	-7	-13,0
14-ira-20	S38	15	32	17	107,8	40	40	0	0,5	55	72	17	30,4
21-ira-20	S39	15	26	11	71,1	38	36	-2	-6,2	54	62	8	15,7
28-ira-20	S40	20	15	-5	-24,2	36	49	13	35,4	56	64	8	14,3
5-urr-20	S41	18	23	5	26,4	31	36	5	16,1	49	59	10	19,9
12-urr-20	S42	18	22	4	20,9	34	36	2	5,3	52	58	6	10,7
19-urr-20	S43	19	22	3	18,3	31	54	23	72,0	50	76	26	52,0
26-urr-20	S44	18	21	3	14,1	34	43	9	26,5	52	64	12	22,1
2-aza-20	S45	18	19	1	3,3	38	53	15	38,0	57	72	15	26,8
9-aza-20	S46	19	19	0	0,0	36	50	14	39,7	55	69	14	25,9
16-aza-20	S47	19	21	2	10,5	34	46	12	36,9	53	67	14	27,4
23-aza-20	S48	17	22	5	31,0	39	46	7	19,2	55	68	13	22,7
30-aza-20	S49	17	18	1	7,1	36	46	10	27,1	53	64	11	20,8
7-abe-20	S50	21	20	-1	-4,8	43	47	4	9,3	64	67	3	4,7
14-abe-20	S51	20	20	0	0,0	41	52	11	26,8	61	72	11	18,0
21-abe-20	S52	20	13	-7	-35,0	44	40	-4	-9,5	64	53	-11	-17,4

2.3. Gehiegizko hilkortasuna, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera, 75 urte eta gehiagokoen kasuan. EAE, 2020ko 1. astetik 52.era.

		Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa		Heriotza-kopurua		Gehiegizkoa	
		Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%	Esperotakoak	2020	Kop.	%
30-abe-19	S01	208	184	-24	-11,7	170	146	-24	-14,2	379	330	-49	-12,8
6-urt-20	S02	253	191	-62	-24,6	187	165	-22	-12,0	441	356	-85	-19,2
13-urt-20	S03	234	217	-17	-7,4	182	154	-28	-15,3	416	371	-45	-10,9
20-urt-20	S04	225	202	-23	-10,2	173	180	7	3,9	398	382	-16	-4,1
27-urt-20	S05	209	228	19	9,1	160	163	3	1,6	369	391	22	5,8
3-ots-20	S06	218	191	-27	-12,4	154	137	-17	-11,0	372	328	-44	-11,8
10-ots-20	S07	207	198	-9	-4,2	160	138	-22	-13,6	366	336	-30	-8,3
17-ots-20	S08	191	199	8	4,2	162	138	-24	-14,6	353	337	-16	-4,4
24-ots-20	S09	189	179	-10	-5,1	147	126	-21	-14,5	336	305	-31	-9,2
2-mar-20	S10	183	189	6	3,1	146	136	-10	-7,0	330	325	-5	-1,4
9-mar-20	S11	184	195	11	6,0	141	160	19	13,2	325	355	30	9,1
16-mar-20	S12	185	211	26	14,3	142	225	83	58,9	326	436	110	33,7
23-mar-20	S13	181	291	110	60,8	134	300	166	123,2	315	591	276	87,4
30-mar-20	S14	168	381	213	127,3	140	305	165	117,5	308	686	378	122,9
6-api-20	S15	170	388	218	128,8	138	236	98	71,0	308	624	316	102,9
13-api-20	S16	179	280	101	56,3	133	219	86	64,2	313	499	186	59,6
20-api-20	S17	161	215	54	33,7	134	153	19	14,2	295	368	73	24,8
27-api-20	S18	156	167	11	6,9	127	143	16	13,0	283	310	27	9,6
4-mai-20	S19	156	201	45	29,2	129	106	-23	-17,8	285	307	22	7,9
11-mai-20	S20	160	171	11	6,9	125	124	-1	-1,0	285	295	10	3,4
18-mai-20	S21	161	159	-2	-1,1	133	118	-15	-11,0	293	277	-16	-5,6
25-mai-20	S22	141	158	17	11,9	125	143	18	14,2	266	301	35	13,0
1-eka-20	S23	144	160	16	11,4	124	131	7	5,6	268	291	23	8,7
8-eka-20	S24	147	143	-4	-3,0	113	109	-4	-3,2	260	252	-8	-3,1
15-eka-20	S25	144	134	-10	-6,9	116	120	4	3,8	260	254	-6	-2,2
22-eka-20	S26	145	161	16	11,3	126	118	-8	-6,3	271	279	8	3,1
29-eka-20	S27	152	146	-6	-3,9	124	110	-14	-11,6	276	256	-20	-7,4
6-uzt-20	S28	155	129	-26	-16,8	116	104	-12	-10,7	271	233	-38	-14,1
13-uzt-20	S29	165	147	-18	-11,1	128	121	-7	-5,6	294	268	-26	-8,7
20-uzt-20	S30	154	166	12	7,9	118	135	17	14,6	272	301	29	10,8
27-uzt-20	S31	151	165	14	9,0	123	135	12	9,8	274	300	26	9,3
3-abu-20	S32	140	177	37	26,2	121	125	4	3,1	261	302	41	15,5
10-abu-20	S33	144	187	43	29,7	118	146	28	23,9	262	333	71	27,1
17-abu-20	S34	152	195	43	28,3	123	121	-2	-1,3	275	316	41	15,1
24-abu-20	S35	159	166	7	4,4	116	158	42	36,7	275	324	49	18,0
31-abu-20	S36	138	163	25	18,1	116	131	15	13,3	254	294	40	15,9
7-ira-20	S37	154	158	4	2,6	108	151	43	39,8	262	309	47	17,9
14-ira-20	S38	152	194	42	28,0	121	177	56	45,8	273	371	98	35,9
21-ira-20	S39	160	174	14	9,0	123	126	3	2,6	282	300	18	6,2
28-ira-20	S40	147	184	37	25,0	121	137	16	13,6	268	321	53	19,9
5-urr-20	S41	149	174	25	17,1	127	150	23	17,9	276	324	48	17,5
12-urr-20	S42	149	151	2	1,5	123	141	18	14,4	272	292	20	7,4
19-urr-20	S43	146	182	36	24,7	126	145	19	14,7	272	327	55	20,0
26-urr-20	S44	159	182	23	14,5	132	172	40	29,9	291	354	63	21,5
2-aza-20	S45	163	194	31	19,0	133	186	53	40,1	296	380	84	28,5
9-aza-20	S46	168	215	47	27,8	132	156	24	18,0	300	371	71	23,5
16-aza-20	S47	172	195	23	13,2	132	174	42	32,2	304	369	65	21,5
23-aza-20	S48	177	222	45	25,7	137	156	19	14,0	313	378	65	20,6
30-aza-20	S49	173	228	55	31,8	137	163	26	18,6	310	391	81	26,0
7-abe-20	S50	182	222	40	22,2	145	176	31	21,4	327	398	71	21,9
14-abe-20	S51	194	193	-1	-0,3	151	165	14	9,1	345	358	13	3,8
21-abe-20	S52	193	179	-14	-7,3	149	148	-1	-0,4	342	327	-15	-4,3

3.1 COVID-19ak eragindako heriotzen kopurua, aste epidemiologikoen eta sexuaren arabera.

		COVID-19ak eragindako heriotzen kopurua		
		Emakumeak	Gizonak	Bi sexuak
30-abe-19	S01	0	0	0
6-urt-20	S02	0	0	0
13-urt-20	S03	0	0	0
20-urt-20	S04	0	0	0
27-urt-20	S05	0	0	0
3-ots-20	S06	0	0	0
10-ots-20	S07	0	0	0
17-ots-20	S08	0	0	0
24-ots-20	S09	0	0	0
2-mar-20	S10	3	2	5
9-mar-20	S11	12	19	31
16-mar-20	S12	47	73	120
23-mar-20	S13	98	155	253
30-mar-20	S14	180	194	374
6-api-20	S15	234	140	374
13-api-20	S16	129	122	251
20-api-20	S17	60	60	120
27-api-20	S18	35	51	86
4-mai-20	S19	37	19	56
11-mai-20	S20	15	10	25
18-mai-20	S21	13	11	24
25-mai-20	S22	9	4	13
1-eka-20	S23	6	5	11
8-eka-20	S24	4	4	8
15-eka-20	S25	0	1	1
22-eka-20	S26	0	2	2
29-eka-20	S27	1	3	4
6-uzt-20	S28	0	1	1
13-uzt-20	S29	0	1	1
20-uzt-20	S30	0	0	0
27-uzt-20	S31	3	6	9
3-abu-20	S32	1	4	5
10-abu-20	S33	4	5	9
17-abu-20	S34	9	16	25
24-abu-20	S35	23	20	43
31-abu-20	S36	26	23	49
7-ira-20	S37	22	30	52
14-ira-20	S38	44	39	83
21-ira-20	S39	34	21	55
28-ira-20	S40	16	24	40
5-urr-20	S41	22	23	45
12-urr-20	S42	20	27	47
19-urr-20	S43	26	20	46
26-urr-20	S44	26	29	55
2-aza-20	S45	39	48	87
9-aza-20	S46	59	52	111
16-aza-20	S47	38	74	112
23-aza-20	S48	50	42	92
30-aza-20	S49	46	42	88
7-abe-20	S50	38	50	88
14-abe-20	S51	31	52	83
21-abe-20	S52	31	38	69